



**Arartekoaren 2024R-1395-23 Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 15ekoa. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari gomendatzen zaio pertsona transexual baten osasun-laguntzaren eskubidea berma dezala.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Osakidetza gehiegi atzeratu zelako sexua berriro esleitzeko ebakuntza (baginoplastia) egiteko eguna epatzean.

Kexagileak kexa-idazkian azaldu zuenez (eta hala egiaztatu zuen agiri bidez), 2022ko ekainaren 8an, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko (HUC) urgentziazkoa ez den kirurgia programatuaren itxarote-zerrendan sartu zen, baginoplastia bat egiteko. Kexagilearen mediku-taldeak aldeko txostena eman zion eskaera horri.

2022ko irailean, interesduna anestesistaren azterketa egitera joan zen, ebakuntza aurreko protokoloaren zati den aldetik, eta arestian aipatutako ospitaleko Genero Identitatearen Unitateko (GMU) zirujau buruak kontsultan hartu zuen. Kirurgialariak adierazi zion ebakuntza 2023ko maiatzean egingo ziotela.

2023ko otsailaren 13an, ebakuntzaren data zehatzari buruzko berririk ez zeukala eta, kexaren sustatzaileak eskaera egin zuen Gurutzetako Ospitaleko Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuan (PEAZ), zerbitzu horretako kirurgiako itxarote-zerrendan zeukan hurrenkera eta ebakuntza egiteko aurreikusitako dataren berri izateko eskatu zuela.

Jasotako erantzuna honako hau izan zen: *“Kirurgia Plastikoko Zerbitzuarekin hitz eginda, jakinarazi dígute badakitela zure kasuaz, baina ezin dizutela datarik zehaztu, arazo larriak, konplexuak eta/edo urgenteak dituzten pazienteei lehentasuna ematen ari baitzaizkie, zurea bezalako ebakuntza programagarrien kaltetan.”*

Horrela, bada, PEAZek emandako erantzunak ez zuen zehaztu kirurgiako itxarote-zerrendan zehazki non zegoen, ez eta ebakuntza egiteko aurreikusten zuten data ere. Beraz, apirilaren 27an, interesdunak kexa berretsi zuen Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuaren bitartez (Zuzenean), eta martxoaren 21eko 65/2006 Dekretuak, Euskadiko Osasun Sistemaren konturako prozedura kirurgiko programatuetara eta urgenteak ez diren iristeko gehienezko epeak ezartzen dituenak, xedatutakoa betetzen ez zela arrazoitu zuen. Kexagileak berriro eskatu zuen idazkian 2022ko irailean izandako kontsultan zirujau plastikoak iragarritako data errespetatzeko, edo, bestela, beste zentro publiko edo pribatu batera bidaltzeko, EAEn zein kanpoan.



Bigarren erreklamazio horri erantzunez, ekainaren 5ean, Osasun sailburuaren Kabineteak PEAZen idazki bat bidali zion, hitzez hitz honela zioena:

*“Horra hor Gurutzetako Kudeatzaileak emandako erantzuna:*

*Konplexutasun handiko kirurgia da, eta profesional adituen talde kirurgiko batek egin behar du, kalitatezko emaitzak bermatzeko. Une honetan, profesional erreferente horietako batzuk ez daude lanean aldi baterako, eta horrek zailtasunak ekarri dizkigu mota horretako kirurgiako ebakuntzen plangintza egiterakoan.*

*(...) Bermeei buruzko Dekretua betetzeko eskaerari dagokionez, jakinarazten dizut Bermeei buruzko 65/2006 Dekretuaren 3. artikulua —Salbuesteak—, honako hau arautzen duela: ‘1.– Dekretu honetako bermetik salbuetsita daude hurrengo prozedura kirurgikoak: b) Interbentzio kirurgiko programatuak baldin eta, segurtasunagatik, espezifikitateagatik, zailtasun-mailagatik, erabili beharreko prozedura berritzaileagatik, edo puntako teknologia erabiltzeagatik, espezialitate handiko zerbitzuek egin behar badituzte’.*

*Gure aburuz, Bermeen Dekretuak dakarren salbuste hori aplikagarri zioa hizpide darabilgun kasuari, oso konplexua delako eta espezializazio handiko zerbitzu batek egin behar duelako. Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Genero Identitatearen Unitatea erreferentziazko zentroa da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Osakidetzako ospitale bakarra da sexua berriro esleitzeko kirurgia-mota horiek egiten dituen.*

*Bestalde, Osasun Ministerioak akreditaturiko Sistemako Erreferentziazko Zentro, Zerbitzu edo Unitaterik (CSUR) ez dago estatuan”.*

2. Herritarrak Arartekoari kexa bidali ondoren, Ararteko erakundeak auziari buruzko informazioa eskatu zion Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, eta adierazi zion ezen, 65/2006 Dekretuak mota horretako ebakuntzak, haien konplexutasunagatik, oro har ezarritako 180 eguneko gehieneko epea aplikatuz kanpo uzten dituen arren (kexagilearen kasuan, epe hori nabarmen gaintu zen), Arartekoaren iritziz, ebakuntza mota horientzat, oro har, dekretuak ezartzen duen gehieneko epea aplikatu ezean, 65/2006 Dekretuaren 6. artikulua xedatutako beste zentro publiko edo pribatu batzuetako arreta finantzatzeko bermeetatik kanpo ere uzten ditu, eta eragindako pertsonak, ikuspuntu material batetik hartuta, osasun-laguntza ukatzen zaieneko egoeran uzten ditu.

---

<sup>1</sup> Osasun Sistema Nazionalaren Erreferentziazko Zentro, Zerbitzu eta Unitateak.



Era berean, adierazi zion EAEko zerbitzuen zorro erkideak eta osagarriak jasotzen dituen osasun-prestazioen katalogoak (prestazio horien artean barruratuta daude horrelako ebakuntza kirurgikoak) aseguramendu publikoaren sistemak babestutako pertsonak behar duten arreta osoa, jarraitua eta egokia jasoko dutela bermatzea duela helburu, eta eskubide hori arrazoizko denborazko epeetan gauzatu behar dela.

Gainera, ziurgabetasun-egoera hark aldakortasun emozionala sorrarazi zion kexa sustatu duen pertsonari, zuzenean, beraren kirurgiako ebakuntzaren "sine die" edo data jakinik gabeko atzerapenak eraginda. Interesdunaren terapeutak egindako txostenak dioenez, *"Osakidetzak emandakok tratuak eta osasun-erakundeak generoa berriro esleitzeko ebakuntza (baginoplastia) egiteko ezarri duen epearen luzamenduak eragin larria dute pazientearen osasun mentalean: aldakortasun emozionala, sufrimendu psikoemozionala eta harreman-zailtasunak"*.

Aldi berean, Arartekoak kexaren sustatzaileari jakinarazi zion, bere zirujauarekin 2023ko ekainaren 28an kontsulta programatua zuenez gero, zentro pribatu batera bideratzeko zeinahi eskaera izapidetu baino lehen, itxarotea komeni zela zirujauak Euskal Osasun Zerbitzuan ebakuntza egiteko datari buruz emango zion informazioa jakin arte.

3. Egindako eskaerari erantzunez, 2023ko irailaren 21ean, Arartekoak Osakidetzako zuzendari nagusiaren beraren txostena jaso zuen. Bertan, Gurutzetako Ospitaleko kirurgia plastikoko zerbitzuaren inguruabarrak zehazten dira eta gertatu den atzerapena justifikatzen.

Txostenean, kirurgia plastikoko ebakuntzak lehenesteko irizpide klinikoak deskribatu eta gero, honako hau adierazi zen:

*"Ondoriozta dezakegu, beraz, ezin dela kirurgiako itxarote-zerrenda bakar batez hitz egin, ezta zerrenda horretako posizio batez ere, ebakuntza-data jakin bat zenbatesteko; izan ere, kirurgiaprogramazioa egiteko, beti hartu behar dira kontuan esandakoak.*

*X.Y. kexari dagokionez, egiaztatu dugu 2022an bularreko feminiza7iorako ebakuntza egin zitzaizola, generoa berresteko bere prozesuaren barruan. Gaur egun, 2022ko ekainaren 8tik dago itxarote-zerrenda kirurgikoan, genitalen berresleipeneko kirurgia baterako (baginoplastia). Ebakuntza kirurgikoaren balizko data bat eskatzeari dagokionez, lehen azaldutakoaren arabera, zaila da data bat zehaztea bere kasuan. Nolanahi ere, lanean ari gara, atzerapenak gutxitzeko"*.

Aipatzekoa da, hala berean, 2023ko urrian, interesdunak ebakuntza aurreko beste azterketa bat egin behar izan zuela, 2022ko irailean egindakoaren epemuga bete baitzen.

4. Jasotako erantzuna ikusita, erakundeak kexagileari aholkatu zion EAetik kanpo dagoen zentro pribatu batera bideratzeko baimen-eskaera egin zezala Osasun Sailaren lurralde-ordezkaritzan. Hain zuzen ere, kirurgiako tratamendu egokia Euskal Osasun Zerbitzuan ematen saiatu arren, 18 hilabeteen (540 egunean) itxarote-zerrendan egon ondoren, pazienteak artean ez zeukan ebakuntza egiteko datarik.

Horri dagokionez, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu erkideen zorroa eta hori eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak<sup>2</sup>, 2.4 artikuluan, honako hau ezartzen du:

*“Osasun Sistema Nazionalaren erabiltzaileek Errege Dekretu honetan aitortutako zerbitzu erkideen zorroa eskuratu ahal izango dute, betiere horretarako gomendio kliniko eta sanitarioa badago, berdintasun eraginkorreko baldintzetan, pazienteak bizi diren eremu geografikoan teknika, teknologia edo prozedura bat duten ala ez alde batera utzita. Zorro honetan jasotako teknika, teknologia edo prozeduraren bat beren eremu geografikoan eskaini ezin duten osasun-zerbitzuek beharrezko bideak ezarriko dituzte hala behar duten erabiltzaileak tratamendu hori jasotzeko zentrorra edo zerbitzura bideratzeko eta bidaltzeko, tratamendua ematen duen osasun-zerbitzuarekin koordinatuta”.*

Hala eta guztiz ere, eskaera ukatu egin zen, lurralde-ordezkararen 2023ko urriaren 11ko ebazpena dela bide, ondokoak oinarritzat hartuta:

*“(...) Eskaerarekin batera aurkeztu den dokumentazioa aztertuta, baieztu da ez datorrela bat Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu erkideen zorroa ezartzen duen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak, hori eguneratzeko prozedurak eta dekretua garatzeko arau guztiek ezarritakoarekin, ez eta aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko araudiak ezarritakoarekin ere.*

*Martxoaren 21eko 65/2006 Dekretuak, Euskadiko Osasun Sistemaren konturako prozedura kirurgiko programatuetara eta urgenteak ez diren etara iristeko gehienezko epeak ezartzen dituenak, 180 egun baino gutxiagoko presakoak ez diren prozedura programatuen erantzuna bermatzen du.*

*Era berean, arau horretatik kanpo daude programatutako ebakuntza kirurgikoak, oso zerbitzu espezializatuek egiten dituztenak, segurtasuna, espezifikotasuna, konplexutasun-maila, prozedurarekiko izaera berritzailea edo sortzen ari den teknologia erabiltzeagatik.*

*Birizendatze genitala egiteko kirurgia konplexutasun handiko ebakuntzatzat hartzen da. Kirurgialari trebatu eta gaitu jakin batzuek baino ezin dute egin, eta iraupen luzekoak dira (ebakuntza-gelako zortzi ordu edo gehiago)”.*

<sup>2</sup> <https://www.boe.es/buscar/pdf/2006/BOE-A-2006-16212-consolidado.pdf>



Lan-arloko jurisdikzioaren aurreko erreklamazioa aurkeztu zen ebazpen horren aurka, eta 2023ko abenduaren 18an ezetsi egin zen, errekurritutako ebazpenak darabiltzak arrazoi berdintsuak emanda.

### Gogoetak

1. Osasun Sistema Nazionalaren (OSN) kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak eta hura garatzen duen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak OSNren zerbitzu erkideen zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituzte.

Errege Dekretu horren 2. artikulua araberak, zerbitzuen zorro erkidea ezagutza eta esperimendazio zientifikoetan oinarritutako teknika, teknologia edo prozeduren multzoa da, eta horien bidez gauzatzen dira osasun-prestazioak. Arrunt esanda, zerbitzu-zorroak zehazten du osasun-sistema publikoak zer-nolako osasun-prestaziorik erantzuten dien edo estaltzen dituen.

Autonomia-erkidegoek, beren eskumenen esparruan, zerbitzu-zorro propioak onar ditzakete. Zerbitzu-zorro horietan, gutxienez, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu erkideen eskaintza jasoko da, eta zerbitzu erkideen zorroan jasota ez dagoen teknika, teknologia edo prozeduraren bat barruratuko da. Horretarako, beharrezko baliabide gehigarriak ezarriko dira.

EAEen, Osasun Sistema Nazionalaren zorro erkidearekin batera, Euskadiko osasun-zerbitzuen zorro propioak genitalak berriro esleitzeko kirurgia (sexu-aldaketa) aintzat hartzen du, aurrekontu publikoen kontura finantzatutako tekniken artean. Zehazki, Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeak<sup>3</sup>, honako hau xedatzen du 8. artikuluan:

*“1. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak, osasun publikoaren doako prestazioen esparruan, diagnostikoak, hormona-tratamenduak eta interbentzio plastiko-kirurgikoak egingo ditu, bai eta, lege hau garatzeko, gorputz-garapena pertsonak bere sentitzen duen generoaren aurka joateagatik sortzen diren arazoak konpontzeko ezartzen diren tratamenduak ere”.*

---

<sup>3</sup> <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2012-9664>



Bestalde, 9. artikulua 1. eta 3. ataletan, EAEko Osasun Administrazioari berariaz agintzen dio legeak transexualei arreta emateko gida kliniko ezar dezala. Gida horrek, gutxienez, honako jarraibide hauek jaso beharko ditu:

c) *“Bermatuko da hormona-terapiak, interbentzio plastiko-kirurgikoak eta gainerako prozedura osagarriak momentu egokian emango direla, eta profesionalen eta zerbitzu horiek eskatzen dituzten artean adostuko direla”.*

2. Kexaren sustatzaileak eskatzen duen osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duela ziurtatzen jo ondoren, osasun-administrazioak eskubide hori gauzatzeko erabili behar duen epea aztertuko dugu.

Ebazpen honen aurrekarietan adierazi den bezala, martxoaren 21eko 65/2006 Dekretuak, Euskadiko osasun-sistemaren konturako prozedura kirurgiko programatuetan eta ez-urgenteetara iristeko gehieneko epeak ezartzen dituenak, 180 egunetik beherako erantzuna bermatzen du, oro har.

Alabaina, arau horrek, 3.1 b) artikuluan, kanpoan uzten ditu programatutako ebakuntza kirurgikoak, baldin eta, segurtasunagatik, espezifikotasunagatik, konplexutasunagatik, prozedurari dagokionez berritzailea izateagatik edo garabidean dagoen teknologia erabiltzeagatik, bereziki espezializatutako zerbitzuek egin behar badituzte.

Ez dago zalantzarik, genitalak berriro esleitzeko kirurgia konplexutasun handiko ebakuntza dela. Hala eta guztiz ere, Arartekoak argitu behar du faktore horrek justifikatzen ote duen osasun-sistema publikoak bermatutako osasun-prestazio jakin bat gauzatzeko epea halako bi edo halako hiru izan daitekeen, kasu honetan gertatu den bezala, oro har ezarrita dagoen 180 eguneko epearen aldean, edo, are gehiago, “sine die” edo epe jakinik aurreikusi gabe etenda gera daitekeen, bai eta pazienteak zer aukera daukan bere eskubidea gauzatzeko.

Hizpide darabilgun kasuan, itxarote-zerrendan 18 hilabeteen (540 egunean) egon ondotik, eta ebakuntza egiteko data aurreikusirik ez zegoenez, kexaren sustatzaileak EAetik kanpoko zentro pribatu espezializatu batera bideratzeko baimen-eskaera egin zuen Osasun Sailaren lurralde-ordezkaritzan.

Kirurgia-eskaera handiko egoeretan, hala nola COVID-19aren pandemiaren osteko aldian sorturikoan, non itxarote-zerrendak arruntean geroratu ziren, pazienteak ospitale pribatuetara bideratzea Euskal Osasun Zerbitzuaren erabiltzaileek balia dezaketen bideetako bat da, eta arestian aipatu dugun martxoaren 21eko 65/2006 Dekretuak ere arautzen du, osasun-laguntza epe egoki batean jasotzeko eskubidea gauza dadin. Osasun sailburuaren hitzetan, adierazitakoa “ez da neurri berria” eta “herritarren beharrei” erantzuteko erabili ohi da<sup>4</sup>.

---

<sup>4</sup> <https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2023/12/27/sagardui-dice-derivar-operaciones-sanidad-7683451.html>



Nolanahi ere den, lurralde-ordezkariek ezezkoa eman zion kexaren sustatzailearen eskaerari, ondokoa argudiatuta: “1030/2006 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat ez datorrelako” eta, beste alde batetik, “Genitalak berriro esleitzeko kirurgia konplexutasun handiko ebakuntzat hartzen delako” eta, beraz, 65/2006 Dekretuak arautzen dituen aurreikusitako gehieneko epeen aplikaziotik kanpo geratuko litzateke.

Horri gagozkiola, irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu erkideen zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituenak, 4.3 artikuluan xedatzen du osasun-laguntza Osasun Sistema Nazionalaren zentro, establezimendu eta zerbitzuek bakarrik emango dutela, propioek edo itunduek, Osasun Sistema Nazionalatik kanpo artatu diren urgentziatzko, presazko eta hil ala biziko laguntza-egoeretan izan ezik, betiere erreferentziako zerbitzu publikoak behar bezala erabili ezin izan direla egiaztatu eta gero.

“Hil ala biziko larrialdia” deritzon kontzeptuari dagokionez, Auzitegi Gorenaren Lan Arloko Salak adierazi du interpretazio-arazoa honakoa zehaztean datzala: hil ala biziko larrialdia berehalako heriotza-arriskuari soilik dagokion edo, bestela, pertsona behar bezala moldatzeko garrantzi handia duten organoen funtzionaltasuna galtzeari ere badoakion, eta auzitegiak azkenaren alde ebatzi zuen, *“izan ere, erregelamendu-arauaren egileak kasu guztiak lehen adieraren arabera mugatu nahi izan balitu, halaxe adieraziko zukeen (kasurako, “heriotza-arrisku berehalakoa” esapidea erabiliz), halako moldez non formula zabalagoa erabiltzea bigarren adieraren arabera interpretatu behar den [«garrantzi edo larritasun handia»], inolako zalantzarik gabe, organo garrantzitsuen funtzionaltasunari lotutako arriskuak barruratzen dituen, areago kontuan hartuta osasuna babesteko eskubideari buruzko konstituzio-manuak [EKren 43.1 artikulua] “ez duela onartzen aztergai darabilgun manuaren interpretazio zekena egitea” (Auzitegi Gorenaren 03/10/20ko Epaia - 3043/02 erreka.).*

Auzi horren inguruan, Kanarietako Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak, 2023ko urriaren 19ko epaian<sup>5</sup>, (zuzenbideko hirugarren oinarria), honako hau adierazi zuen:

*“Sala honek ezin du alde batera utzi transexualek gizarte-, osasun- eta lege-diskriminazioa sorrarazi dieten egoera ugari pairatu ditzaketela, eta, legearen ikuspegitik egin diren aurrerapenak gorabehera, babes juridiko eta sanitarioa behar duen kolektibo kaltebera izaten jarraitzen dutela. Horregatik, doktrinaren ildoan, Espainiako osasun-sistemaren lege-berrikuspenera egitea*

---

<sup>5</sup><https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/21775ded3dc946eaa0a8778d75e36f0d/20231123>



*aldeztu da, transexualei arreta emateko prestazioak eta zerbitzuak ezagutzeko xedez. Espainian, lurralde-deszentralizazioak, Estatuko araudirik ezak eta Genero Identitatearen Unitateen eskasiak esku-sartzea eragiten dute genero-identitatearen autodeterminazio askean, bai eta desberdintasun-egoerak ere osasun-prestazioak eskuratzeko orduan, interesduna zein autonomia-erkidegotan bizi den kontuan hartuta”.*

Jarraian, ondokoa dio:

*“Osasun-administrazioaren eta onuradunen artean sortzen diren gatazkak hainbat motatakoak izan daitezke, oro har, honako hauetan: 1. Osasun-laguntza urgentea, berehalakoa eta hil ala bizikoa; 2. Osasun-laguntza justifikaziorik gabe ukatzea; 3. Diagnostikoan egindako akatsak; 4. Itxarotzerrendak; edo 5. Teknika aurreratuak erabiltzea.*

*Hala eta guztiz ere, Auzitegi Gorenak adierazi duen bezala, kasu horiek ez dira kontzeptuzko purutasunean agertzen normalean, baizik eta, orokorrean, figura baten eta bestearen ezaugarrien nahasketa konplexua dakarten inguruabarretan gertatzen dira, eta horrek biziki zaildu egiten du horiek aztertzea eta kasua arauan barruratzea (Auzitegi Gorenaren 2007ko uztailaren 4ko Epaia, 2215/2006 eta 2009ko azaroaren 16ko epaiak, 4426/2008 erreka.)”.*

Epai honek aztertzen duen kasuan, faloplastiako ebakuntza ukatu egin zen pazienteak bidaltzeko Erreferentziazko Osasun Zentro edo Unitaterik (CSUR) ez zegoelako, eta, aldi berean, Kanarietako Osasun Zerbitzuak baieztatu zuen ez zuela kirurgiako ebakuntza hori egingo autonomia erkidego horretako ospitale publiko batean.

Ilido horretan, auzitegiak honako hau dio:

*“Hau da, auzi-jartzaileak prestazio hori jasotzeko izan zuen bide bakarra klinika pribatu batera joatea izan zen, ebakuntza egin ziezaioten. Beraz, gure ustez, auzigaia ebazteko, kontuan hartu behar da eskatutako asistentzia medikoari sistema publikoak inolako justifikaziorik gabe emandako ezezko baten aurrean gauden —asistentziaren atzerapena ere aintzat hartu behar duena—, eta hala izan dela uste dugu, bi baldintzatan oinarrituta: 1) deribazio-espeditentearen barruan, ebakuntza zentzuzko epe baten barruan egiteko baimenik ematen ez zaiolako, 8. ZOk adierazten duen bezala “ez dago jasota deribazio hori Endokrinologia Zerbitzuak 2018ko martxoan egindako eskaeraren ondoren gauzatu denik, eta are gutxiago Malagako Eskualdeko Ospitaleak onartu duenik deribazio hori benetan eta eraginkortasunez bere gain har lezakeela”; 2) itzulketa-erreklamazioa aurkeztu zenean, administrazioak baztertu egin zuen, auzi-jartzaileak Gizarte Segurantzakoak ez diren zerbitzuetara bere erabakiz jo zuela argudiatuta, baimenik izan gabe, baina agerikoa da ez zela horrela gertatu, faloplastia egitera I.M.C. klinika pribatura jotzeko erabakia ez zen auzi-jartzailearen erabaki aldebakar eta*





*apetatsua; aitzitik, osasun-zentro horretara jo zuen tratamendua jasotzen ari zen osasun publikoko zentroak ezin ziolako prestazio hori eman”.*

Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiak, 2018ko maiatzaren 31ko Epaia<sup>6</sup> (4570/2017 errek.) dela bide, itxarote-zerrendan zegoen transexual baten kasua aztertu zuen, orduan, estatuan erreferentziazkoa zen CSUR baliabidera bidali zutelako; auzi horretan, zalantza egiten zen pertsona horri ebakuntza berehala egiteko eskubidea ote zuen, itxaroten eman zuen denbora kontuan hartuta. Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiak uzia onartu zuen, modu analogikoan, Kode Zibilaren 4.1 artikulua, Antolamendu Sanitarioari buruzko abenduaren 9ko 7/2003 Legearen 133 u) artikulua, eta osasun-arretari lotutako gehieneko itxaronaldiak bermatzeari buruzko Galiziako maiatzaren 6ko 104/2005 Dekretuaren 5. eta 7. artikulua gogora ekarrita. Hala, horiek guztiak parametrotzat baliatu zituen prestazio horren justifikaziorik gabeko atzerapen baten aurrean ote zeuden ebazteko, arestian aipatutako dekretuan jasotzen diren kirurgiako ebakuntzen egiturazko gehieneko itxaronaldiei doakienez.

Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiak errekurtsoa onartu zuen, eta, horrekin batera, gastu medikoen itzulketa, arrazoi hauengatik:

*“Kontrakoa ulertzea diskriminatzailea izango litzateke, errekurtsogilea Galiziako Autonomia Erkidegoaren eremu geografikotik kanpo dagoen Osasun Sistema Nazionalaren erreferentziako zentro batera edo zentro pribatu batera joan behar izate hutsagatik, baldin eta kirurgiako ebakuntzaren beharra Galiziako lurraldean dagoen zentro publiko edo pribatu batean konpontzea egongo litzatekeen beste patologia batengatik izan balitz, horrezkero ebakuntza eginda egongo litzateke eta Servizio Galego de Saúdek bere gain hartuko luke osasun-laguntza, edo, ebakuntza itunpeko zentro batean eginez gero, aipatutako ebakuntza ordainduko luke”.*

Eta epaitzaren amaieran, errekurtsogilearen eskubidea aitortzen da:

*“(…) berehala ebakuntza egin diezaioten Osasun Sistema Nazionaleko erreferentziazko zentro publiko batean, sexua berriro esleitzeko kirurgiako ebakuntza egiten duen batean, edo, erreferentziazko zentro publikorik egon ezean edo halako batean egitea ezinezkoa balitz, Instituto de C.P.M.I. zentro pribatuan egin diezaiotela. Erakunde demandatua hori betetzera eta epaitzari men egitera kondenatzen dugu, eta, hala, interesduna adierazitako zentroetako batera bideratuko beharko du berehala, ebakuntza egin diezaioten, eta aipatu den kirurgiako ebakuntza egitearen ziozko kostu osoa eta beharrezkoa ordaindu beharko du”.*

---

<sup>6</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/940ea1a7869fe289/20180920>

3. Konstituzio Auzitegiak 2022ko ekainaren 2ko 67/2022 Epaian<sup>7</sup> adierazi duen bezala, genero-identitatea nortasunaren garapen askeari lotutako inguruabarra da, giza duintasunaren errespetuari estuki lotua (EKren 10.1 artikulua), eta identitatearen ezaugarri horrek, ohiko parametro hetero-normatiboekin bat ez datorrenean, hau da, pertsonaren genero-identitatea eta sexua guztiz bat ez datozenean, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua debekatzen duen desabantailazko gizarte-egoera batean egon daiteke norbanakoa.

Diskriminaziorik ezaren printzipioa nortasunaren garapen askean eta, zehazki, haren genero-identitatean aplikatzeak badakar ezinbestean ordenamendu juridikoa interpretatzean eta aplikatzean inor ez diskriminatzea transexuala izateagatik.

Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen<sup>8</sup> 4. artikulua babesteko betebeharra ezartzen die botere publikoei, beren eskumenen esparruan, eta horretarako, *“LGTBI pertsonen eta haien familien sexu-orientazio eta -identitateagatiko, genero-adierazpenagatiko edo sexu-ezaugarriengatiko tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza aitortu, bermatu, babestu eta sustatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak”* garatu behar dituzte.

Horren barrukoak dira zeharkako diskriminazio-erak, itxura batean neutroa den xedapen, irizpide edo jardun batek pertsonen desabantaila bereziren bat eragin diezaieketenean, haien sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik<sup>9</sup>.

Hala, Arartekoaren ustez, aztergai darabilgun kasu honetan, Osasun Lurralde Ordezkaritzak egin duen 65/2006 Dekretuaren 3.1 b) artikulua interpretazioa, gehieneko kirurgia-denborez denaz bezainbatean, interesdunaren eskaera bidezkoztat jo ez duela, 540 egunetan itxarote-zerrendan egon dela kontuan hartuta, konplexutasun handiko kirurgia bat izate hutsagatik, eta, beraz, gainerako ebakuntzetan araututa dagoen 180 eguneko epe orokorretik kanpo egoteagatik, zeharkako diskriminazio kasua izan liteke, eta, hartara, interesdunak desabantaila berezia paira dezake Osasun Zerbitzu Publikoaren gainerako erabiltzaileen aldean.

Ondorioz, Arartekoaren iritziz,

- Kexaren sustatzailea kirurgiako itxarote-zerrendan dago 2022ko ekainaren 8tik, hau da, orain dela 540 egun baino gehiago, genitalak berriro esleitzeko (baginoplastia) ebakuntza egin diezaioten.
- Osakidetzak, uneko baliabide faltagatik, ez zuen kirurgiako ebakuntza egin Gurutzetako Ospitaleko Genero Identitatearen Unitateko zirujauak

<sup>7</sup> [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-11083](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-11083).

<sup>8</sup> <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2023-5366>.

<sup>9</sup> Otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 3.b) artikulua.



programatutako egunean, eta gaur egun ez dago ebakuntza egiteko datarik zehazteko moduan.

- Espainiako Estatuan ez dago Osasun Ministerioak akreditaturiko CSUR baliabiderik, interesduna horietako batera bideratu ahal izateko.
- Auzitegiek gai horri buruz emandako erabakiak aintzat hartuta, asistentziaren atzerapena sistema publikoak erabiltzaileak eskatutako laguntza medikoari justifikaziorik gabe emandako ukoaren parekoa izan daiteke.
- Horren guztiaren ondorioz, kebaren sustatzaileak osasun-arreta egokia jasotzeko eskubidea gauzatzeko duen bide bakarra, une egokian eta bereziki prestatuko profesionalek egina, zentro pribatu batera bideratzea da, eta deribazio hori aurrekontu publikoen kontura finantzatu behar da.
- Eskaera ukatzea, itxuraz neutroa den agindu batean oinarrituta, zeharkako diskriminazio kasua izan liteke eta, hargatik, interesdunari desabantailazko egoera berezia eragin dakioke Osasun Zerbitzu Publikoaren gainerako erabiltzaileen aldean.

Goian azaldutako aurrekariak eta gogoetak aintzat hartuta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten diogu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

### GOMENDIOA

Arartekoak Osasun Sailari gomendatzen dio, Guruzetako Unibertsitate Ospitalean kirurgia plastikoaren arloko itxarote-zerrendak gaur egun daukan atzerapena murrizteko baliabide pertsonal eta materialez hornitzeari kalterik egin gabe, eta, horrela, ahal den osasun-laguntzarik onena eman dezan, aztergai darabilgun kasuan, baimena eman dezala kexa sustatu duen pertsonak berak proposatutako zentro pribatura bideratzeko eta eskatutako kirurgiako ebakuntza gauzatzeko, sail horren aurrekontuaren kontura.